

DONOSTIAKO VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO ETA ANTZOKI ZAHARREKO MAKINA ESZENIKOEN ETA IKUSKIZUNEN ARGIZTAPENAREN INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKI BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Donostiako Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko makina eszenikoen eta ikuskizunen argiztapenaren instalazioak mantentzeko zerbitzua, Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian aurreikusitakoaren arabera.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA sozietatea (VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA aurrerantzean) da erakunde kontratugilea.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO kudeatzailea da kontratazio-organoa.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Prozedura ireki bidez esleituko da kontratua.

Prozeduraren xedea da eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkezten duen enpresaria aukeratzea, betiere Orri honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

4. ALDAGAIK

Ez da aldagairik onartzen

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek izango dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten den kontratuaz gain: klausula ekonomiko-administratiboen orri honek, Preskripzio Teknikoen Orriak eta esleipendunak aurkeztuko duen eskaintzak.

Esleipendunak aipatutako agiri guztiak sinatuko ditu, kontratua formalizatzen denean, guztiak onartzen dituela egiaztatuz.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, formalizatu eta biharamunetik hasita; eta urtebeteko bi luzapen izan ditzake, erakunde kontratugileak berak bakarrik eskatzen badu ere. Zentzu horretan, kontratuak gehienez ere lau urteko iraupena edukiko du, luzapenak barne hartuta.

Luzapenaren jakinarazpena kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago egingo da gutxienez, eta derrigorrezkoa izango da enpresa kontratistarentzat.

7. KONTRATUAREN PREZIOA ETA BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren prezioa zehazteko kontuan hartuko da:

a) Aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzua

Lizitatuzaileek proposamen ekonomikoan adieraziko dute aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzua eskaintzeko prezioa, a) atal honetan adierazitakoaren arabera.

Lizitazioaren urteko gehieneko aurrekontua 18.000 euroko da, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga (BEZ) kanpo.

Lizitatuzaileek eskaintzen duten urteko prezioaren barruan, Victoria Eugeniak kontratua formalizatu eta gero erosten dituen instalazioen aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzua sartuko dira. Halere, prezioaren barruan sartuko diren instalazio berriak ezin dira egungo instalazio kopuruan %10tik gorakoak izan.

Lizitatuzaileek proposamen ekonomikoetan zerbitzuen prezioa eta aurrekontu bat adieraziko dute. Aurrekontu horretan zehaztuko dira mantentze mota bakoitzaren prezioak (aldizkako oinarrizko mantentzea eta geldialdi teknikoarena), prezio unitarioak, denbora-unitateen arabekoak (ordu kop.), teknikari eta zerbitzu bakoitzagatik, zerbitzu bakoitzagatik eskainitako prezioa zehazteko kontuan hartutakoak, eta prezio unitario bakoitza erabiliko den ordu kopuruarekin biderkatuko da.

Instalazio berriak 10% gainditzen dutenean, aipatutako prezio unitarioak erabiliko dira aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzuen prezioa kalkulatzeko. Instalazioa berriak ezingo dira %30 baino gehiago izan. Kasu horretan, ez dira kontratu honen xede izango.

b) Matxurak konpontzeko zerbitzua eta larrialdi-zerbitzua

Lizitatuzaileek aurkeztuko duten proposamen ekonomikoan, matxurak konpontzeko zerbitzua eta larrialdi-zerbitzua eskaintzeko denbora-unitateei (orduak) dagozkien prezioak adierazi beharko dituzte.

Helburu horiekin, gehieneko prezio unitarioak (BEZ gabe) eta kontuan hartu beharreko euren haztapena honako hauek dira:

b).1 Matxurak konpontzea (erantzuteko gehieneko denbora: 48 ordu edo esleipendunak eskainitako eperik laburrena)

LANGILEAK	HAZTATZEA	GEHIENEZKO PREZIOA
Ordua/ingeniaria	20%	65 € ordua/pertsona

Ordua/teknikaria	80%	55 € ordua/pertsona
------------------	-----	------------------------

b).2 Larrialdi-zerbitzua (erantzuteko gehienezko denbora: ordu bat)

- **Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan, 8:00etatik 15:00etara)**

LANGILEAK	HAZTATZEA	GEHIENEZKO PREZIOA
Ordua/ingeniaria	12%	80 € ordua/pertsona
Ordua/teknikaria	50%	65 € ordua/pertsona

- **Astelehenik ostiralera, 8:00ak baino lehen eta 20:00ak eta gero; larunbatetan, 8:00ak baino lehen et 15:00etatik aurrera; igande eta jai-egunetan**

LANGILEAK	HAZTATZEA	GEHIENEZKO PREZIOA
Ordua/ingeniaria	8%	90 € ordua/pertsona
Ordua/teknikaria	30%	70 € ordua/pertsona

Kontratistak zinez lan egindako orduengatik egingo du faktura, ordu erdiko zatikitan. Langile teknikoak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN instalazioetara iristen diren unetik aurrera hasiko da zenbatzen ordu kopurua.

Eskaintzen diren guztizko prezioaren eta prezio unitarioen barruan sartuko dira mantentze-zerbitzua egiteko gastu guztiak. Ez da onartuko aurrerago aurkeztutako fakturarik, azken prezioan kontuan hartu behar ziren baina kontuan hartu ez diren kontzeptuengatik.

Eskaintzen diren prezioen barruan ulertzen dira zerbitzuek berezkoak dituzten kontzeptu guztiei dagozkienak eta zerbitzuak eskaintzeko baliatutako langileekin lotutako gastu guztiak (besteak beste, soldatak eta Gizarte Segurantzza, oporrak eta aparteko ordainsariak, langileen bajak edo gaixotasunak direla eta egiten diren ordezkapenak, istripu indibidualetarako aseguruak, eta abar), bai eta zerbitzuek sortutako zerga (BEZa kanpo, kontu-sail independente batean adieraziko zaie

lizitzaileei) garraio-kostu, aseguru, lizentzia, baimen eta gainerako gastu orokor guztiak ere.

Halaber, lizitzaileek eskaintako prezioen barruan daude:

- Garraio-gastuak, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN instalazioetaraino, eta lizitazio honen xede den ekipamendu tekniko eszenikoaren eta ikuskizunen argiztapenaren mantentzea egiteko beharrezkoak diren bitarteko gehigarri eta tresna guztiak.
- Baldintza Teknikoen Orriko 3.3.4. Klausulan aurreikusitako laguntza teknikoko zerbitzua.
- Instalazioen garbiketa eta hondakinen kudeaketa, Baldintza Teknikoen Orriko 4.6. Klausulan aurreikusitakoaren arabera.
- Zerbitzuaren kudeaketa informatizatua, Baldintza Teknikoen Orriko 4.1. klausulan adierazitako terminoetan.
- Zerbitzuarekin lotutako dokumentazio teknikoaren kudeaketa, Baldintza Teknikoen Orriko 4.2. klausulan adierazitako terminoetan.
- Materialen kudeaketa, Baldintza Teknikoen Orriko 4.3 klausulan adierazitako terminoetan.

Lizitzaileek eskaintako prezioetan sartuta egongo dira, halaber, zerbitzua eskaintzeko enpresa kontratistak erabili behar dituen baliabide, erreminta, ibilgailu, ekipa, tresna, ekipo informatiko eta lanabesak.

Bi zerbitzuen gehieneko prezioak murriztu ditzakete lizitzaileek beren proposamen ekonomikoetan. Edozein kasutan, ezin dira prezio altuagoak eskaini. Prezio horiek gainditzen dituzten guztiak lizitaziotik kanpo geratuko dira.

Eskaintza ekonomikoak eurotan adierazitako dira unitateko, eta prezio unitarioak adierazteko zifra bat erabiliko da eurotan, eta ez dira bi hamarreko baino gehiago jarriko.

Lizitzaileek kontu-sail independente batean adieraziko dute VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK jasan beharko duen BEZa.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren deialdiaren iragarkia argitaratzearen ondoriozko gastuak esleipendunak ordaindu beharko ditu.

Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (SPKLTB) onartzen duenaren 88. artikulua onorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia, izan daitezkeen luzapenak barne hartuta, **141.820 eurokoa** da, BEZa kanpo.

Balio zenbatetsi hori SPKLBko 88.5.a) artikulua arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan balio beragatik esleitutako antzeko kontratuen benetako balioa, kontratua hasi eta ondorengo hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kantitateen aldaketen arabera egokituta, eta kontratuak irauten

duen denbora guztian luzatu da, luzapenak (2 urte) barne hartuta. Balio zenbatetsiaren barruan sartzen da ordezeko piezen eta kontsumigarrien erosketa prezioa, Baldintza Teknikoen Orriko 4.3 klausulan adieraziotako terminoetan.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Hiru hilean behingo ordainketak egingo dira, enpresa kontratistak kasuan-kasuan dagokion faktura aurkeztu eta gero.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI eskainitako zerbitzuengatik hiru hilean behin ordainduko den prezioa kalkulatzeko, honela jokatu da:

- Esleipen-zenbatekoa zati 4 egitetik lortzen den kopurua, aldizkako oinarrizko mantentze-zerbitzuan eta geldialdi teknikoaren zerbitzuan.
- Instalazio berriak %10 baino gehiago badira, eskainitako prezio unitarioak bider zerbitzua emateko erabili diren orduak egitetik lortzen den kopurua.
- Eskainitako prezio unitarioari dagokion hiruhilekoan egindako ordu kopurua aplikatzean lortzen den kopurua, matxurak konpontzeko zerbitzuan eta larrialdi-zerbitzuan.
- Hiruhilekoan erositako ordezeko piezen, kontsumigarrien eta materialen prezioa, Baldintza Teknikoen Orriko 4.3 klausulan adieraziotako terminoetan

Enpresa kontratistak faktura hiru hilean behin luzatuko du, kasuan-kasuan dagokion hiruhilekoa amaitu eta hurrengoaren 15. eguna baino lehen.

Fakturan eskainitako zerbitzuak banakatuta adieraziko dira, baita erabilitako prezio unitarioak ere.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK zerbitzuak eskaintzen diren hiruhilekoa amaitzen denetik hogeita hamar egun naturaleko epea edukiko du eskainitako zerbitzuen prezioa ordaintzeko, betiere lehen aipatutako epearen barruan luzatu bada faktura eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK ontzan eman badu.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Eskainitako prezioak urtero berrikusiko dira, kontratua formalizatu eta lehenengo urtea pasa eta gero, eta Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumorako prezioen indizearen edo horren ordezeko indizearen aldaketaren % 85 aplikatuz.

Lehen berrikuspena egingo da oinarri gisa kontratistak eskainitako prezio unitarioak erabilia eta, ondorengo urteetarako, aurreko berrikuspenaren emaitzazko prezioak erabiliko dira.

10. GAITASUN BALDINTZAK

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREkin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta behar adinako kaudimen

ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Ezin izango dute lizitazioan esku hartu kontratuaren zehaztapen teknikoak edo prestaketa-dokumentuak lantzen parte hartu duten enpresek, baldin eta parte-hartze horrek lehia librerako murrizketak eragin baditzake edo gainerako enpresa lizitatzailerikiko tratu pribilegiatua ekar badezake.

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzugintza gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa-gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren zerbitzuak haien estatutuen edo eratze arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.

Nolanahi ere, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin kontratatzeko ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetakoen enpresa ez-espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan kasu zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren estatuetakoen pertsona fisikoen edo juridikoen kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBko 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitatekiko kontratazioetan parte hartzea.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzten diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta tekniko edo profesionaleko gutxieneko eskakizunak eta kontratua gauzatzeko gutxienezko giza bitartekoak eta bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa:

Azken hiru urteetan, urte bakoitzean gutxienez 300.000 euroko negozio-bolumena edukitzea kontratuaren xede diren zerbitzuen esparruan (espazio eszenikoetan makina eszenikoen eta ikuskizunen argiztapenaren instalazioak mantentzeko zerbitzua).

Horrez gain, lizitatzailerik konpromisoa hartuko dute kontratura honako hauek atxikitzeko:

- Donostiatik gehienez 20 kilometrotara dagoen bulego edo delegazioa. Berau, kontratura gutxienez atxikitu behar dituen langileen lantokia izan behar du.
- Gutxienez Baldintza Teknikoen Orriko **4.7. Klausulan** deskribatutako giza bitartekoak. Aipatutako Klausulan adierazitako baldintzak beteko dituzte.

Konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SPKLTBko 223. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Urratuz gero, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK kontratua bertan behera uzteko eskubidea du.

Kontratua egiteko eta/edo kontratura gutxienerako giza bitartekoak eta bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa betetzeko beharrezkoa den kaudimena ziurtatzeko, beste erakunde batzuen kaudimena edo bitartekoak erabiliko dituzten lizitatzailleek, erakunde horiekin dituzten harremanen izaera juridikoa edozein dela, Notarioak ziurtatutako idatzi bat aurkeztuko dute (**VI. eranskineko** ereduaren arabera), eta honako alderdi hauek adieraziko dituzte kontratuan inplikatzaren diren enpresa horiek: lizitatzailleak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzen eragina ezagutzen dutela; aipatutako kaudimena dutela ziurtagiria aurkeztu behar da, **12. Klausulan** adierazten den moduan; eta aipatutako lizitatzaillea esleipendun suertatzen bada, kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak uzteko borondate ezeztazina (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuko dute, eta bitartekorik ordezkatu edo aldatu behar bada, Administrazioak berariaz baimendu beharko du). Idatzi hori aurkeztuz gero, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK konpromiso hori onartzen duela adieraziko du, baldin eta lizitatzaille hori esleipendun gertatzen bada.

11. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Esleipena VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAren kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratugilearen profileraz sartzeko: <http://www.donostiakultura.com>.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarkien zenbatekoa lizitazioaren esleipendun izango dien lizitatzailleak ordaindu beharko du.

12. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamena aurkezteko 15 egun naturaleko epea izango dute, azken iragarkia argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen duela baldintza-orri osoa eta gainerako kontratu-dokumentazioa, inongo salbuespenik gabe.

Orri hau eta Baldintza Teknikoen Orria kontratugilearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Konstituzio Plaza, 1 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, lizitazio-iragarkia argitaratu eta biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Proposamenak prestatzeko, interesdunek Victoria Eugenia Antzokira eta Antzoki Zaharrera bisita egin dezakete. Helburu horrekin, eskaintzak aurkezteko epearen barruan, interesatuta dauden guztiek donostiakultura@donostia.org helbide elektronikora idatziz egindako eskaera igorri beharko dute. Hurrengo hiru eguneko epean, eta posta elektronikoko bidez, bisita egiteko hitzordua emango zaie, eguna, ordua eta lekua adierazita.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatuzaileek HIRU GUTUN AZAL ITXI aurkeztuko dituzte **eskura** (A, B eta C) DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN bulegoetan (Konstituzio Plaza, 1 20003 Donostia), erregistro-ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan 9:00etatik 13:30era), ezarritako epearen barruan. Gutun-azal horietan beranduago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, pertsona fisikoaren nortasuna edo enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izena eta abizenak eta izaera, telefono-zenbakia eta fax-zenbakia eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, Orri honen **II. Eranskin**eko ereduaren arabera. Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jai-eguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Gutun-azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

A gutun-azala. "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

a) Lizitatuzaileak eta, hala badagokio, bere ordezkioak, jarduteko gaitasuna duela ziurtatzen duten agiriak:

1. Lizitatuzaileak eta, hala badagokio, bere ordezkariak, jarduteko gaitasuna duela ziurtatzen duten agiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuaren jarduteko ahalmena frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: eratzearen eskritura edo dokumentua, estatutuak edo fundazio egintza, jarduerak bete beharreko arauak jasotzen dituztenak, dagokien erregistro publikoan inskribatuak, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasuneko estatuetakoen enpresaburu ez espainiarren jarduteko ahalmena frogatzeko dokumentu hauek aurkeztuko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiria, aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzerritarren kasuan, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomaziako misio iraunkorraren edo enpresak egoitza duen lurralde-esparruko kontsuletzeko bulegoaren txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBko 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuaren jarduteko ahalmena frogatzeko nortasun agiri nazionala aurkeztuko dute, edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da.

- Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek nortasun agiri nazionalaren kopia eta horretarako behar besteko ahalordea aurkeztuko dute Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da dagokion boterea, betiere Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak elkartearen eratzeko dutenen izenak eta ezaugarriak eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartearen eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta esku hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaladun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkaritza edo ahaladun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, ahalorde erkidetuak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handi samarreko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpulsatutako kopia izango dira.

2. SPKLTBko 60.1. artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitazioaren aitortzen erantzulea, **III. Eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Lizitazioarekin indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen aitortzen erantzulea barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko abantailatsuena egiten duen lizitazioarekin aipatutako baldintza betetzen duela ziurtatuko du, eta horretarako 5 egun balioduneko epea edukiko du, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK xede horrekin bidaltzen dion jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

3. Enpresariaren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatze dokumentuak, eta giza bitartekoak eta bitarteko materialak atxikitze konpromisoa, **10. Klausulan** aurreikusitakoaren arabera.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala ziurtatzeko, azken hiru urteetan kontratuaren xede diren zerbitzuen esparruan (espazio eszenikoetan makina eszenikoen eta ikuskizunen argiztapenaren instalazioen

mantentze-zerbitzua) gauzatutako zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda bat aurkeztuko da, eta bertan zehaztuko dira zerbitzu bakoitzaren zenbatekoa, datak eta hartzaila/bezeroa, publikoa edo pribatua. Guztiarekin batera, aipatutako hartzailaiek/bezeroek luzatutako ziurtagiria aurkeztuko da.

Kontratua gauzatzeko material bitartekoak atxikitze konpromisoa lizitzailearen aitoren batekin ziurtatuko da. Bertan, atxikituko dituen bitarteko materialak identifikatuko ditu. Giza bitartekoei dagokienez, Baldintza Teknikoen Orriko 4.7. klausulan eskatuta gutxieneko baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duen curriculum vitae-a aurkeztuko dute.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario-akta aurkeztuko da, lizitzaileak eskatzen den kaudimena duela edo kontratura gutxieneko giza bitartekoak atxikitze konpromisoa beteko duela ziurtatzeko, **VI. Eranskinen** jasotako ereduaren arabera.

5. Kontratua gauzatzeko enplegatzen diren langileek Gipuzkoan pareko langileen kasuan onartu den hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritakoa baino soldata baxuagoa jasoko ez dutela ziurtatzeko konpromisoa adierazten duen aitoren erantzulea (X. eranskinen ereduaren arabera)

6. Atzerriko enpresek, bestalde, berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka erator daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla adieraziko dute.

7. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, Orri honen **II. Eranskinen** ereduaren arabera.

8. Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzen direla ziurtatzen duen aitoren erantzulea, **V. Eranskinen** ereduaren arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko kontratisten erregistro ofiziala arautzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako kontratisten erregistroan inskribatuta dauden lizitzaileek, bestalde, erregistroaren ardura duen legelariak emandako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1. atalean aipatutako dokumentazioaren ordez.
- (ii) VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK eskubidea du lizitzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko.
- (iii) Atzerriko enpresek dokumentazio guztiaren gaztelaniarako edo euskararako itzulpen ofiziala aurkeztuko dute.

B gutun-azala. "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Lizitzaileek aurkeztuko duten proposamen teknikoan dokumentazio hau barne hartuko da:

1. Mantentze Plan Orokorren proposamena, Baldintza Teknikoen Orriko 2. klausulan adierazitako terminoetan. Aurkezten den proposamenak Baldintza Teknikoen Orriari adierazitako gutxieneko baldintzak beteko ditu (egin beharreko bisiten gutxieneko maiztasuna, gutxieneko iraupena, egin beharreko gutxieneko lanak, bisita bakoitzean parte hartuko duen gutxieneko ekipoa eta abar).
2. Matxurak konpontzeko zerbitzuaren eta larrialdi-zerbitzuaren plana. Baldintza Teknikoen Orriko 3.3.3. Klausulan ezarritako gutxieneko baldintzak beteko ditu.

Zerbitzua betetzeko planaz gaine, matxurak konpontzeko zerbitzuaren erantzuteko gehieneko epea zehaztuko da, Baldintza Teknikoen Orriko 3.3.3. Klausulan adierazten den moduan. Epe horrek ez du 48 orduko tarte gaitzuko, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK konponketa-eskaera egiten duenetik hasita.

3. Lizitzaileak kontratua gauzatzeko atxikiko duen lan-taldearen deskribapena (Orriko **10. klausulan** aurreikusten den moduan, kontratua gauzatzeko gutxienez atxiki beharreko pertsonak). *curriculum vitae*-a; titulazioak, prestakuntza eta beste edozein berariazko ezaguera zein kontratuaren xedearen antzekoak diren zerbitzuak adieraziko dira.

Zerbitzua elebiduna izango dela ziurtatu behar dela kontuan hartuta, langileak elebidunak izango dira eta baldintza hori betetzen dela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztuko da.

4. Orriaren xede diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoak diren bitarteko gehigarriak, tresnak, erremintak, bitartekoak eta ekipo gehigarriak.
5. Hala badagokio, zerbitzua hobetzea, mantentze-lanak azkar egingo direla ziurtatzeko.

Gutun-azal honen dokumentazioa jatorrizkoa edo kopia sinplea izan daiteke. Hala ere, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK, eskaintzak baloratzeko orduan, lizitzaileei jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatzeko.

C gutun-azala – “PROPOSAMEN EKONOMIKOA”

Honako agiri hauek edukiko ditu proposamen ekonomikoak:

- **IV. eranskinean** txertatzen den ereduaren arabera idatzitako proposamen ekonomikoa.

Aldizkako oinarriko mantentze-zerbitzuaren eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzuaren kasuan, **IV. eranskin** gisa gehitzen den ereduaren arabeko proposamen ekonomikoaz gain, bakoitzaren banakapena egingo da, Orri honen **7. Klausulan** adierazitako terminoetan.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuaren indarraldian, A, B eta C gutun-azalean aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du, baita preskripzio teknikoaren orrian

eskatutakoena ere. Kontratatik aurkeztutako datuetan edo zirkunstantzietan faltutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabea izan daiteke, kontratatik berari egozteko moduko arrazoien ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratua esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzailleek ez badute jaso.

13. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera antolatuta, honakoak dira:

1. Proposamen teknikoa: 60 puntu arte.

- Mantentze Plan Orokorra: 40 puntu arte.

Baldintza Teknikoen Orriko gutxienerako gaitzen dituzten baldintza guztiak baloratuko dira.

- Matxurak konpontzeko zerbitzua eta larrialdi-zerbitzua: 4 puntu arte.

Proposatutako plana eta Baldintza Teknikoen Orriko gutxienerako gaitzen dituzten baldintza guztiak baloratuko dira.

Modu osagarrian, matxurak konpontzeko zerbitzuaren erantzuteko gehieneko epea baloratuko da, Baldintza Teknikoen Orriko 3.3.3. Klausulan adierazten den moduan. Epe horrek ez du 48 orduko tartea gaituko, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK konponketa- eskaera egiten duenetik hasita.

- Kontratura atxikitako lan-taldea: 10 puntu arte.

Baldintza Teknikoen Orri honetako 4.7. klausulan adierazten denaren arabera, atxikitako gutxienerako langileen kualifikazio gehigarria baloratuko da, Orri honen **10. Klausularen** gutxitzeagatik, eta Klausulan adierazitako gutxienerako haraindi atxikitako langileen osara eta kualifikazioa baloratuko da, halaber.

- Orriaren xede diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoak diren bitarteko gehigarriak, tresnak, erremintak, bitartekoak eta ekipo gehigarriak: 2 puntu arte.
- Mantentze-lanak azkar egingo direla ziurtatzeko hobekuntzak: 4 puntu arte.

2. Proposamen ekonomikoa: 40 puntu arte.

- a) Aldizkako oinarriko mantentze-zerbitzua eta geldialdi teknikoaren mantentze-zerbitzua: 32 puntu arte.

Ondorengo formularen arabera baloratuko dute:

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak honako formula honen bitartez baloratuko dira:

$$P=32 \times (1 - ((B_{\max} - B_n) / B_{\max}))$$

Esanahia:

P= Baloratzen ari diren lizitzaileak lortutako puntuazioa.

Beherapena = aurrekontuaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko aldea eurotan

N eskaintza = baloratzen ari diren eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

B_{max}= prezio baxueneko eskaintzak aurrekontuan eragiten duen beherapena

B_n= N eskaintzaren aurrekontuarekiko beherapena

Proposamen desegoki edo irregular bat antzemanaz gero, eskaintza egin duen lizitzaileari audientzia emango zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

Ondorio horietarako, neurritz kanpokotzat edo ohiz kanpokotzat jo daiteke eskaintza bat, baldin eta lizitazioaren gehieneko aurrekontua % 20 edo gehiago beheratzen bada.

b) Matxuren arreta: 5,6 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak honako formula honen bitartez baloratuko dira:

$$P=5,6 \times (1 - ((B_{\max} - B_n) / B_{\max}))$$

Esanahia:

P= Baloratzen ari diren lizitzaileak lortutako puntuazioa.

Beherapena = aurrekontuaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko aldea eurotan

N eskaintza = baloratzen ari diren eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

B_{max}= prezio baxueneko eskaintzak aurrekontuan eragiten duen beherapena

B_n= N eskaintzaren aurrekontuarekiko beherapena

Formula hori eskaintako prezio bakoitzari aplikatuko zaio. Ondoren, haztapena egingo da Klausula Ekonomiko-administratiboan Orriko **7. Klausulan** adierazitako ehunekoaren arabera. Proposamen ekonomikoen balorazioa egiteko bakarrik kalkulatu dira portzentaje horiek.

c) Larrialdi-zerbitzua: 2,4 puntu arte.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak honako formula honen bitartez baloratuko dira:

$$P=2,4 \times (1 - ((B_{\max} - B_n) / B_{\max}))$$

Esanahia:

P= Baloratzen ari diren lizitatzailleak lortutako puntuazioa.

Beharpena = aurrekontuaren eta aurkeztutako eskaintzaren arteko aldea eurotan

N eskaintza = baloratzen ari diren eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa.

B_{max} = prezio baxueneko eskaintzak aurrekontuan eragiten duen beharpena

B_n = N eskaintzaren aurrekontuarekiko beharpena

Formula hori eskaintzako prezio bakoitzari aplikatuko zaio. Ondoren, haztapena egingo da Klausula Ekonomiko-administratiboan Orriko **7. Klausulan** adierazitako ehunekoen arabera. Proposamen ekonomikoen balorazioa egiteko bakarrik kalkulatu dira portzentaje horiek.

14. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO Kontratazio Saileko ordezkari bat
- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO produkzio-zuzendaria
- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO teknikariburua
- VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO arkitektoburua

15. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun-azaleko ("Kontratatze gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta taxuz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez-egiterik antzeman ez gero, hiru egun balioduneko epea utziko da, gehienez ere, lizitatzailleak akats edo ez-egite horiek konpontzeko.

Ondoren B gutun-azala irekiko da. Bertan gordetzen da proposamen teknikoak, eta beraren azterketa eta balorazioa egingo da.

C gutun-azaleko proposamen ekonomikoen irekiera publikoki egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaie onartutako lizitatzaille guztiei, **II. Eranskinaren** arabera jakinarazpenak egiteko aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Kontratugilearen profileen argitaratuko da guztia (www.donostiakultura.com) 48 ordu lehenago.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoaren balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren lizitatzaleei, betiere horrela egiteko eskatzen badute.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO aurrerantzean) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arazoietan nahastuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztu diren proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, handienetik txikienera sailkatuak, eta **13. Klausulan** ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza abantailatsuena zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren helburu izango da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko abantailatsuena identifikatzeak ez du eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzalearen alde.

16. KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko abantailatsuena egin duen lizitatzaleari, eta lizitatzaleak bost egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen ziurtagiria.

Esleipendunak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ), kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela frogatu beharko du. Horretarako, alta agiria aurkeztu beharko du, une horretako ekitaldiari baldin badagokio, edo JEZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen aitorten erantzulea gaineratu beharko da.

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazioaren iragarkia argitaratzeagatik sortutako gastuak ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Egindako eskaintzan konprometitutako baliabideak prest daudenaren egiaztagiria.
- Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartearen lege-sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa-elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratuak iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- **20. Klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

- Enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, erantzukizun zibilaren aseguratzailearen ziurtagiria aurkeztuko du, "Aseguru-entitatearen Ziurtagiria" izeneko **VII. Eranskin**eko ereduaren arabera.

Eskatutako guztia epearen barruan betetzen ez bada, lizitatzailleak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da; kasu horretan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileri –eskaintzen sailkapenaren arabera aukeratuko dira lizitatzailleak.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan eta, edozein kasutan, proposamenak irekitzen direnetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatzaillei jakinaraziko zaie, Orri honen **II. Eranskin**eko ereduaren arabera eta, aldi berean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIko kontratugilearen profilean argitaratuko da.

17. KONTRATUA HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA

Formalizatzean hobetuko da kontratua.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da 5 egun balioduneko epearen barruan, esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kontratuak edozein erregistro publikora sartzeko balioko du.

Esleipendunak, halere, kontratua eskritura publiko bilakatu dadin eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Esleipendunaren erruagatik kontratua epearen barruan formalizatzen ez bada, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK hurrengo lizitatzaileri eska dakioke Orri honen **16. Klausulan** adierazitako dokumentazioa. Eskaintzen sailkapenari jarraituko zaio hurrengo esleipenduna aukeratzeko eta hamar eguneko epea edukiko du eskatutako dokumentazioa aurkezteko.

18. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua enpresa kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko da.

Klausulei, Orri honetan eta Baldintza Teknikoen Orrian adierazitakoari, eta kontratistak aurkeztutako eskaintzari hertsiki lotuta gauzatuko da kontratua, baita, kontratuaren interpretazio teknikoa egitean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK enpresa kontratistari eman diezazkiokeen jarraibideen arabera ere.

Kontratistak kontratua gauzatzeko bere eskaintzan hitzartutako bitartekoak atxikiko ditu, eta zehazki, bulego edo ordezkari bat edukiko du Donostiatik gehienez ere 20 kilometrora.

Kontratua VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuta gauzatuko da. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK kontratuko betebeharrak zuzen

betetzen direla eta guztiak behar den bezala gauzaten direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK egokitzat jotzen dituen kanpolaguntzak jasoko ditu, kontratuko betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo auditoria egiteko, bai eta lana kalitate maila egokiarekin garatzen dela egiaztatzeko ere.

Kontratistak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio, edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

Kontratistak ez du oztoporik jarriko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanetan.

Kontratistak konpromisoa hartzen du Laneko Arriskuen Prebentzioaren alorrean indarrean dagoen araudia betetzeko, eta bereziki, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIKO SEGURTASUN ARAU OROKORRAK betetzeko. Guztiak langile propioei eta azpikontratatuak jakinaraziko zaizkie. Bestalde, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK jardueraren izaeraren arabera ezartzen dituen kontrol- eta segurtasun-neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du.

Kontratistak bere eskaintzan konprometitutako baliabideak atxiki beharko ditu kontratura. Kontratistak lana ondo eta kontratuetan hitzartutako epeen barruan egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu, eta bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatu beharko ditu. Kasu horretan, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu bere ardurapeko langileekin.

Xede horietarako, eta jarri beharreko beste edozein bitarteko material eta pertsonali kalterik egin gabe, kontratistak Mantentzea Kudeatzeko Ordenagailu bidez Lagunduko Sistema bat (MKOLS) aurkeztuko du, Baldintza Teknikoen Orrian adierazitakoaren arabera, eta horretarako, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratistaren betebeharrak izango dira (i) beharrezkoa den hardwarea instalatzea, mantentzea eta ordezkatzeta, beharrezkoa denean; eta (ii) erabilitako softwarearen edozein elementuren baimenak eta eskubideak lortzea eta berritzea, bai eta softwarea eguneratzea ere, beharrezkoa denean. Edozein modutan, kontratista izango da erantzulea kontratutik at geratzen diren hirugarrenek Jabetza Intelektualaren gainean egin ditzaketen erreklamazioen aurrean, eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI kontzeptu horiek direla eta aurkeztutako erreklamazioen ondorioz sortutako kalte-ordainak ordainduko dizkio.

Esleipendunak zerga-esparruan eta lan-esparruan indarrean dauden xedapenak beteko ditu, bai eta Gizarte Segurantzaren eta Laneko Arriskuen Prebentzioaren esparruan indarrean daudenak ere, zerbitzua gauzatzeko erabiliko diren langileei dagokienez. Xede horrekin, langileek esparruan beharrezkoak dituzten prestakuntza ikastaroak eskainiko ditu.

Esleipendunaren ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela eta VICTORIA

EUGENIA ANTZOKIAK funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen dutela ziurtatzea.

Langile guztiak enpresa kontratistaren mendekoak dira. Enpresa kontratistarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI erreklamaziorik egin dagozkion lan-harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa kontratista izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin –langile propioekin edo noizean behinka azpikontratatzan direnekin– lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK ez du lan-erantzukizunik (laneko segurtasun, higieine eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga-esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Modu berean, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu zerbitzua eskaintzean gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

Kontratazio honen helburuaren barne ez dago VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK datu pertsonalak erabiltzea.

Hala izanda, kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak, bere jardueren esparruan, egiten duen datu pertsonalen edozein tratamendu, eta tratamendu horren Arduradun den aldetik, bere kontura eta bere erabakiz egiten duela ulertu behar da. Edozein kasutan, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hau garatzen duen araudian aurreikusitakotik enpresarentzako eratorriko diren obligazioak bere gain hartu beharko ditu, tratamendu horren ondorio gisa.

19. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Honakoak kontratistaren funtsezko kontratuko betebeharrak:

- Kontratua bere klausulek, Orri honek eta Baldintza Teknikoen Orriak adierazten dutenera lotuta betetzea, eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK kontratistari ematen dizkion jarraibideetara lotuta betetzea.
- Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarreni eragin ahal zaizkien kalte galera guztien kalte ordainak.
- Eskaintzan barne hartutako bitarteko guztiak kontratura atxikitzea.
- Lan esparruan indarrean dauden lege xedapenak betetzea, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren esparrukoak, eta baita kontratu honetako lan xedapenak ere. SAN TELMO MUSEOAK ez du erantzukizunik edukiko aipatutako araudiak urratzen badira.
- Kontratua gauzatzeko enplegatzen diren langileek Gipuzkoan pareko langileen kasuan onartu den hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritakoa baino soldata baxuagoa jasoko ez dutela ziurtatzeko konpromisoa errespetatzea.

- Kontratatistak eta zerbitzua eskaintzen duten pertsonak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan ematen dituen jarraibideak jarraitzea.
- Langile guztiak behar den bezala kontratatuta egongo dira eta alta emanda Gizarte Segurantzaren kontratatistaren kontura, eta ez da inolako erlazio juridikorik egongo langile horien eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN artean, ez kontratuaren indarraldian ez inoiz.

Edozein unetan eska dakiokete VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk esleipendunari lan-kontratuaren kopia eta/edo Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopia.

Langile horiek ez dute lan-erlazioerik ez eta beste mota bateko erlazioerik edukiko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREKIN eta ez da subrogatuko kontratatistaren eta bere langileen arteko kontratuko erlazioetara.

- Baldintza Teknikoen Orriko 4.1 klausulan Zerbitzuaren kudeaketa informatizatuari buruz ezarritakoa bete beharko da. Horrela, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK onartzen ez badu kontratatistak ekarritako sistema informatikoa, kontratuaren suntsiaraztea adostu dezake.
- Grebarik badago, zerbitzuak betetzea. Zerbitzuak bermatzen ez badira, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK eskumena du zerbitzuak estaltzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko. Horrelakoetan, kontratu horien zenbatekoak fakturaziotik murriztuko dira. Greba-garaian benetan eskainitako zerbitzuei dagozkien prezioa baino ez da ordainduko.
- Langileak ordezkatzeko dagokien lana behar bezala ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak eskaintzean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK eskaera egin eta gehienez ere 24 orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileen ordezkapenak ez dute erantzukizunik sortuko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARENTZAT, esleipendunak eragindako langileekin dituen erlazioei dagokienez.
- Langileak ordezkatzeko gaixotasun, opor, baimen, istripu, eta abarreatatik izaten diren bajak estaltzeko, betiere kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean, jarraituan eta uniformearen eskainiz. VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK eskaera egin eta gehienez ere 24 orduko epean egingo dira ordezkapenak.
- Zerbitzua behar den bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak lortzea. Era berean, enpresa kontratatistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeko gauzatu behar dituen gastuak, bai eta jarduera gauzatzeko dagozkion tasa eta zerga mota guztiak ere; halaber, bere gain hartuko ditu kontratu indarrean dagoen bitartean kontratua gauzatzeko ondoriozta daitezkeen betebeharrak guztiak.
- Orri honen **24. Klausulan** adierazitako aseguru-polizak egitea eta mantentzea kontratua indarrean dagoen bitartean.
- Kontratua behar den bezala garatu eta betetzeko VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, ordainketa

gehigarrik jasotzeko eskubiderik gabe. Betebehar hori bermealdiak irauten duen bitartean edo kontratua amaitu arte mantenduko da, hala badagokio.

- Enpresa kontratistak ezar daitezkeen eta indarrean dauden arau guztiak errespetatuko ditu. Bereziki, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa, eta Donostiako Udalaren 2008-2013 Berdintasunerako II. Plana. Halaber, jarduera guztiak Euskararen Normalkuntzarako azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen esparruan garatuko dira, bai eta Donostiako Udalaren Euskararen Erabileraren Normalkuntza Planaren arabera ere (4. plangintza aldia).

Klausula honetan barne hartutako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak dira - bereziki, kontratua gauzatzeko enplegatzen diren langileek Gipuzkoan pareko langileen kasuan onartu den hitzarmen kolektibo sektorialean (bosgarren gidioan) ezarritakoa baino soldata baxuagoa jasoko ez dutela ziurtatzeko konpromisoa.- SPKLTBren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hortaz, horiek urratuz gero, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK kontratua suntsiaraztea erabaki dezake.

20. BERMEAK

Behin-behineko bermea: Ez da beharrezkoa.

Behin betiko bermea: Kontratuaren esleipendunak, kontratua beteko dela bermatzeko, esleipen-zenbatekoaren ehuneko 5en baliokidea (BEZa gabe) izango den behin betiko bermea eratuko du.

Eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkezten duen lizitatuak bost egun baliadun edukiko ditu aipatutako bermea eratzeko, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN eskakizuna jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTB 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan osa daiteke bermea.

Abal moduan eratuz gero, baldintza orri honi **I. Eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Eskudirutan egiten bada, 2101 0381 0900 1216 7102 Kutxako kontu korrontean egingo da.

Bermea Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebehar guztiak bete dituztenean.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK aldeko txostena egin ondoren itzuliko da bermea.

Bermearen gainean esleipendunari eska dakizkiokkeen zigorrak edo kalte ordainak gauzaten badira, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiak gauzatu eta 15 egun baliaduneko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa

gorde dezan. Enpresaburuak 15 egun balioduneko epea izango du bermea egokitzeko, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita.

Baldintza orri honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBko 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

21. ZIGORRAK

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, kontratista horrek eskainitako entrega- eta instalazio-epea ez badu betetzen eta atzeratzen bada, edo kontratatutako zerbitzuak oker gauzatu baditu, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK kontratua bertan behera uztea erabaki dezake, **31. Klausulan** adierazitako baldintzak betez, edo kontratuak jarrai dezala erabaki dezake. Azken kasu horretan, ondorengo ataletan adierazitako zigorrak sortuko dira.

Ondorio horietarako, sortutako zigorren zenbatekoa ez betetzearen sailkapenaren araberakoa izango da (oso larria, larria edo arina).

Ez betetze oso larrien kasuan, 4.000 euroko zigorra sortuko da. Ez betetze oso larriak izango dira honako hauek:

- Araudiak ezartzen dituen mantentzeak ez betetzea.
- Matxurarik edo larrialdirik gertatzen bada ez bertaratzea, edo atzerapenez bertaratzea —eskainitako epea baino 12 ordu beranduago gutxienez matxuren kasuan, eta erantzuteko ordu bateko epearekiko 30 minutuko atzerapenarekin larrialdien kasuan.
- Lanak egitean ezarritako segurtasun-neurriak ez betetzea.
- Ordezko pieza gisa pieza erabiliak erabiltzea.
- Telefono-zerbitzuari arretarik ez ematea.
- Antzokietako teknikariburuak ematen dituen aginduak ez betetzea.

Ez betetze larrien kasuan, 2.000 euroko zigorra sortuko da.

Ez betetze larriak izango dira honako hauek:

- Zerbitzuak eskaintzean gutxieneko baldintzak ez betetzea, bisita, ordutegi eta abar gisako alderdiei dagokienez.
- Baldintza Teknikoen Orriko 4.2. Klausulan eskatzen den dokumentazioa ez aurkeztea.

Gainerako ez betetzeak ez betetze arinak dira eta 500 euroko zigorra sortuko da. Ez betetze arintzat joko da berariaz zerbitzuak eskaintzen diren espazioak zikin egotea eta Antzokiko langile teknikoenganako errespetu falta.

Edozein modutan, Klausula honen babespean eska daitezkeen zigorrak metagarriak izango dira, zinez eragindako kalte eta galerei dagokienez.

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta atzerapenak daudelako ez betetzeak, lanak oker egin izanak edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeak iraun bitartean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK edozein unetan utz dezake indarrrik gabe kontratua, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorak ordaintzeko, enpresa kontratistari, ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kantitateak murriztuko zaizkio, edo behin betiko bermetik murriztuko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean. Kasu horretan dagokion erreklamazioa aurkez daiteke eraturako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Edozein modutan, kontratua bertan behera utzi zein jarraitu erabaki, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK egokitzat jotzen duen denboran hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerei eta Klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

22. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak dagokion kontratuaren arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar den bezala eskaintzen dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, berari dagozkion eskumenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko bat edo juridiko bat izan daiteke, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN barrukoa edo kanpooka.

Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

23. KONFIDENTZIALTASUNA

Esleipenaren publizitateari dagokionez eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokionez Orri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK ezin izango du zabaldu kontratistak konfidentziazat izendatu duten informazioa.

Kontratistak, bere aldetik, kontratuak gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, baita Orrietan izaera hori ematen zaion informazioa eta berez konfidentziala dena ere. Konfidentzialtasun behar horri etengabe eutsiko zaio informazio hori ezagutzen den unetik.

24. ASEGURUAK

1. Enpresa esleipendunaren ardura izango dira kontratua gauzatzean eragindako kalte eta galera guztiak, izaera eta bolumena edozein delarik.

Kontratuan ezarritakoa gorabehera, enpresa esleipendunak kontratuak irauten duen bitartean izan daitezkeen gertaerak estaltzeko, sor daitezkeen kalte ordainez arduratzeko nahikoa den aseguru poliza kontratatuko du bere kontura.

Aseguru honen bermeen kalte ordainetarako muga ez da 600.000 euro baino gutxiago izango ezbehar bakoitzagatik.

Esleipendunak kalteak eragiten baditu VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN edo bere ondasun edo langileen gainean, polizan kalte-ordaina jasoko duten hirugarrenen multzoan sartuko dira. Kalteak beste edozein hirugarren bati, VICTORIA EUGENIA

ANTZOKIARI edo bere ondasun edo langileei eragiten bazaizkie, aseguratutzat joko dira guztiak Erantzukizun Zibilaren polizaren barruan.

Edozein kasutan, esleipendunaren kontura izango dira aseguru desberdinen frankizien zenbatekoa eta ezbeharrengatik ordaindu beharrekoa, eta aseguru polizan mugak gainditzen diren kasuetan ezarritako kopuruak ordainduko dira. Era berean, bere kontura izango dira polizak estaltzen ez dituen hirugarrenen kalte ordainak eta kalteak.

Eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkezten duen lizitatzailleak hamar egun baliodun edukiko ditu, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, erantzukizun zibilaren aseguratzailearen ziurtagiria aurkezteko, "Aseguru-entitatearen Ziurtagiria" izeneko **VII. Eranskin**eko ereduaren arabera.

2. Enpresa esleipendunak bere kontura mantenduko ditu jarraian adierazitako estaldurak, kontratua gauzatzen den bitartean eta/edo eskainiko diren zerbitzuen kasuan gutxienez:

- o Enpresa esleipendunak eta azpikontrastek, egonez gero, Gizarte Segurantzaren alta emanda edukiko dituzte, indarrean dagoen araudiaren arabera, kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzen parte hartzen duten pertsona guztiak. Halaber, kasuan-kasuan sektoreko hitzarmenetan zehaztutako Bizitza eta Istripu Aseguruetako eskakizunak beteko ditu.
- o Esleipendunaren kontura izango dira edozein parte hartzailearen instalazio, makina, ekipo eta ondasunen gainean eragindako kalteak, kalte pertsonalak barne hartuta.

3. Aipatutako aseguruen kontratazioak ez ditu mugatuko enpresa esleipendunak gainerako kontratuzko zehaztapenen arabera bere gain hartu dituen betebeharrak eta erantzukizunak: Kontratugilearen erantzukizun primarioa eta zuzena ezingo da murriztu, arindu edo atzeratu aseguratzaileen baldintzen edo jardueren arabera.

4. Kontratuak irauten duen bitartean, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK esleipendunari eska dakioke lehen aipatutako aseguruen dokumentazioa aurkezteko, edo polizen kopia aurkezteko. Halaber, primen ordainketa egunean duela ziurtatzeko eska dakioke, eta esleipendunak eskaera betetzeko betebeharra du.

5. Aseguru propioak kontratatzeke baldintzak urratzea, lehen aipatutakoa kontuan hartuta eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK adierazita, kontratu-hutsegite larritzat joko da eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK eskubidea du kontratatu gabe dauden aseguruek kontratatzeke, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK ezarritako epeen barruan.

6. Esleipendunak dituen betebeharrak berak kontratatutako azpikontrastek dagozkie halaber eta, oro har, kontratua gauzatzeko parte hartzaile guztiei. Ondorioz, betebeharrak horiek guztiak jakinarazi eta kontrolatuko dira.

25. KONTRATUA LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio baldin eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk aurreiazko baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege-betebeharrak eta baldintza-orri honetan VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu, ez du kontratatzeke debekurik izango. Gainera, bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko du, eta, baldintza-orri honetan aurreikusitako giza baliabideen esleipena bete beharko du. Horrela egingo du lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez.

26. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio baldin eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk aurreiazko baimena ematen badu, zehazki eta idatziz. Edonola ere, lagapen-hartzaileak lege-betebeharrak eta baldintza-orri honetan VICTORIA EUGENIA ANTZOKIArekin kontratuak egiteko eskatzen diren betebeharrak bete beharko ditu eta ez du kontratatzeke debekurik izango. Gainera, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko du, eta, baldintza-orri honetan aurreikusitako baliabideak atxikitzeke konpromisoa hartuko du. Hori guztia azpikontratatu d(ir)en zerbitzuari/zerbitzuei dagokio/enez.

27. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan. Hori guztia beteko da, Baldintza Teknikoen Orriko 3.2 klausularen arabera, kontratua handitu egiten ez den bitartean.

28. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratastak izango du egiten dituen lanen eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikieriek, akatsek, metodo desagokiek edo okerreko ondorioek VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratastak ordainduko ditu kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek (enpresa esleipendunaren langile propioek edo azpikontratatuak) jasaten dituzten kalte eta galera guztien kalte-ordainak.

29. KONTRATUA ETETEA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk kontratua etetea adosten badu, edo etetea Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen 220. artikuluko 5. atalean xedatutakoa aplikatzeagatik egiten bada (kasu honetan berariaz aplikatzekoa da), dagokion Akta egingo da. Idatzi horretan, etetea eragin duten arrazoiak eta kontratuaren egoera adieraziko dira.

Etetea erabakita, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk kontratastari benetan izandako kalteen ondoriozko kalte-galerak ordainduko dizkio.

30. KONTRATUAREN HARRERA

Kontratua guztiz beteko du kontratistak zerbitzugintza osorik egin duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN adostasunarekin.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK erabakiko du enpresa kontratugileak egindako prestazioak kontratua betetzeko ezarritako Baldintzekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Betiere, **21. Klausulan** aurreikusitakoari kalterik egin gabe; edozein kasutan, DONOSTIA KULTURAK dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, bai eta kalte eta galeren kalte-ordainak ere, kontratuaren xede den prestazioa eskaintzeko atzerapenik izan bada edo gauzatze akastuna egin bada.

31. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira SPKLTBko 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoa kaltetu gabe-, b), d), f), g) eta h) hizkietan adierazitakoak eta, oro har, kontratuzko edozein betebeharratzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Kasu horretan, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK hartu duen erabakia jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak eskaintzeko ordura arte landu dituen dokumentu guztiak, eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera.

Ondorio horietarako, gauzatze-egoeraren Akta idatziko da, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN ustez eginda dauden lanak eta egin gabe daudenak zehazteko, baita egin gabe egoteko arrazoiak zehazteko ere. Era honetara, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango du, bere kontu edo hirugarren baten bitartez.

Betiere, kontratuaren ondorengo likidazioari kalterik egin gabe eta jarraian xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua suntsiaraztean eta dagozkion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Ezeztatzen bada, kontratistak benetan egin dituen lanen prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du, hasiera batean.

Enpresa kontratugileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik indarrik gabe uzten bada/dira kontratua/k, kontratuaren prezioaren % 20 pareko kantitatea zergapetuko da VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN alde, izaera metagarriarekin, kasuan kasu ordaindu beharreko kalte eta galeren ordainez gain.

Bi kantitate horiek behin betiko bermeari eta enpresa kontratistari ordainketa oso edo zatiko gisa ordaindu beharreko kantitateei kenduko zaie, baina, ezinezkoa bada, erreklamazioa aurkeztuko da.

32. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA

Prestaketari eta esleipenari dagokienez, kontratua honakoek arautuko dute: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orriak, Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAREN kontratatzeke barne-instrukzioek, SPKLTBn horri buruz ezarritako arauak; eta, hala badagokio, 817/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 8koa eta Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen zatiko garapena egiteko denak (817/2009 ED aurrerantzean) adierazitakoek. Horrela egingo da esleitzeko boterea eduki eta herri-administrazioak ez diren sektore publikoko erakundeek araupetze harmonizatutik kanpo egindako kontratuekin, betiere HAKLEOK aurreikusitakoaren kontra ez badago.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: Klausula Ekonomiko-Administratiboen Orri honek eta Baldintza Teknikoen Orriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, SPKLTBn I. Liburuko V. Tituluan kontratuak aldatzeko ezarritako arauak aplikatuko dira.

Horrez gain, SPKLTB, 817/2009 ED eta HAKLEO aplikatzekoak izango dira Orri honek testu arauemaile horietara espresuki jotzen duenerako.

Jurisdikzio ordena zibilak izango du kontratuaren ondorioei eta kontratua betetzeari eta iraungitzeari dagokionez aldean artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

Donostia, 2013ko maiatzaren 6an.

donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura
Victoria Eugenia Antzokia, S.A.
Amaia Almirall
Kudeatzailea